# TELETRAMITACIÓN DE DOCUMENTOS ELECTRÓNICOS DE RESIDUOS EN EL ÁMBITO DE LA CA DE EUSKADI

Vitoria-Gasteiz a 02 de diciembre de 2010

Estimado Cliente:

Desde el 1 de enero de 2010 los documentos involucrados en el flujo de información relativa a los traslados de residuos peligrosos, y a los residuos inertes con destino a vertedero, se gestionan, en el ámbito de la CA de Euskadi, de modo exclusivamente electrónico a través del Sistema de Gestión Integral de la Información Medioambiental del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, el **Sistema IKS-eeM.**

Esta medida afecta a los siguientes documentos: Solicitud de Admisión (SA, SANP), Documento de Aceptación (DA, DANP), Notificación de Traslado (NT), Hoja de Recogida Itinerante (HRI) y Documento de Control y Seguimiento (DCS, DSC).

A partir del próximo **1 de enero de 2011** dicha medida se ampliará al ámbito de la Gestión de los **Residuos No Peligrosos.**

## 1.- ACCESO AL SISTEMA

El acceso al **Sistema IKS-eeM** se efectúa a través de la web www.eper-euskadi.net clicando en el logo IKS eeM y, en el ámbito de la CA de Euskadi, exclusivamente a través de las siguientes tarjetas digitales de IZENPE (**Empresa de certificación y servicios,** sociedad anónima constituida en 2002 promovida por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales):

### 1.1.- PERSONAS JURÍDICAS

**Tarjeta de Entidad, única y vinculada a la persona Representante Legal o persona con poderes**
**Tarjeta Corporativa Privada, vinculada a cualquier persona autorizada por parte de la entidad**.

Excepcionalmente y hasta la plena expansión de la Tarjeta Corporativa Privada se podrá utilizar la **tarjeta de ciudadano** que será vinculada a la entidad correspondiente. para lo cual deberán acreditar su pertenencia a la misma a través de la presentación de copia electrónica de su DNI y de una Declaración Responsable emitida por el representante legal de la entidad o persona en quien delegue acreditando la pertenencia del solicitante a dicha entidad. El Sistema IKS eeM facilitará entonces el acceso a la persona autorizada a través de un proceso de vinculación DNI-CIF.

### 1.2.- PERSONAS FÍSICAS

Para las personas físicas cuyos centros operativos estén ubicados en la CA de Euskadi se utilizará igualmente la **tarjeta de ciudadana-ciudadano**.

Para las personas físicas cuyos centros operativos se encuentren ubicados fuera de la CA de Euskadi será necesario estar en disposición del **DNI electrónico** tal y como se contempla en el apartado siguiente.

### 1.3.- CENTROS OPERATIVOS EXTERNOS A LA CA DE EUSKADI

Las personas físicas, bien actuando en su nombre, o bien en nombre de personas jurídicas cuyos centros operativos se encuentren ubicados fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi podrán interactuar con el **DNI electrónico**.

En este último supuesto, es decir cuando actúen en nombre de su entidad (personas jurídicas), deberán acreditar su pertenencia a la misma a través de la presentación a la cuenta dmausuario@yahoo.es , de copia electrónica de su DNI y de una Declaración Responsable emitida por el representante legal de la entidad o persona en quien delegue, certificando la pertenencia a dicha entidad de la persona autorizada. El Sistema IKS eeM facilitará entonces el acceso a dicha persona a través de un proceso de vinculación DNI-CIF.

## 2.- IZENPE

Los certificados digitales relacionados en el apartado 1.1 se expiden por parte de la sociedad IZENPE, debiéndose solicitar cita previa en el teléfono **90254252.** Para más información puede visitar la pagina web www.izenpe.com .

Además es necesario disponer de teclado con lector integrado o, en su defecto, se necesita de un lector de tarjetas que debe conectar con su ordenador y que pueden adquirir en centros distribuidores de productos informáticos especializados.

## 3.- ALTA DE ENTIDADES Y/O PERSONAS USUARIAS

Si la entidad (persona física o jurídica) no está dada de alta en el Sistema IKS eeM deberá activar el proceso de autologin y cumplimentar los datos de entidad y centro para obtener su Número de Identificación Medioambiental (NIMA) y, en su caso, los datos correspondientes a su perfil medioambiental (bolsas).

## 4.- AUTÓNOMOS, PYMES Y MICROEMPRESAS

Se permitirán las transacciones y/o intercambio de metadatos a través del Sistema IKS eeM por parte de personas físicas o jurídicas autorizadas (Entidades de Gestión de la Información Medioambiental (EGIA), Entidades de Gestión Delegada (EGD-gestores de residuos) y Agentes (AGD), cuya relación se encuentra publicada en la web www.eper-euskadi.net .

Las personas o entidades habilitadas para transaccionar y/o intercambiar información medioambiental con el Departamento en representación de terceros, deberán ostentar la representación necesaria para cada actuación, en los términos establecidos en el artículo 32 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, lo que les permitirá operar en el Sistema IKS eeM en nombre de sus clientes.

El representante legal del centro operativo productor deberá comunicar de modo expreso la existencia de la prestación del servicio de gestión de la información (EGIA), gestión delegada (EGD) o agente de gestión delegada (AGD) presentando escrito de apoderamiento del representante legal según el modelo que corresponda en función de si se trata de una persona física o jurídica, modelo existente al efecto en la web www.eper-euskadi.net .
Los representados deben seleccionar dentro del Sistema IKS eeM a aquella entidad a la que van a otorgar la representación adjuntando el documento electrónico citado en el apartado

anterior, habilitando a cualquiera de las figuras (EGIA, EGD, AGD) el acceso a los datos de su representada y, por tanto, la atribución de operar electrónicamente en su nombre.

## 5.- TRANSACCIONES ELECTRÓNICAS DE DOCUMENTOS DESDE ERP EXTERNO

Los documentos electrónicos a los que se refiere la presente circular podrán ser transaccionados directamente al Sistema IKS eeM desde un Sistema de Gestión Empresarial (ERP) externo homologado en el lenguaje e3l.
Toda la información acerca del lenguaje e3l y el proyecto ETER puede encontrarse en la web www.eterproject.org .

## 6.- GUÍAS BÁSICAS IKS eeM PARA LOS CIRCUITOS DE RESIDUOS PELIGROSOS, NO PELIGROSOS E INERTES

Documentos resumidos de los pasos que deben seguirse de forma previa a la generación de documentos electrónicos de residuos desde el Sistema IKS eeM.

Pueden ser descargadas en la siguiente url:
http://www.eper-euskadi.net/eper_euskadi/eper_listados/aviso_c.htm

## 7.- CURSOS DE FORMACIÓN SISTEMA IKS eeM

Se puede acceder a la información relativa a los cursos ofertados (Niveles Básico y Avanzado) y a la inscripción a los mismos en la página web de Euskadi Innova: http://www.euskadinnova.net/es/enpresa-digitala/agenda/index.aspx .

Adicionalmente se pueden solicitar a través de dicha url cursos acelerados de aprendizaje en la interacción con la administración electrónica, a través de tarjetas digitales en el marco del Sistema IKS eeM.

La impartición de los mencionados cursos se efectúa en los Parques Tecnológicos y en la red de centros KZ-Gunea.

Si considera necesaria la organización de un curso de forma específica para un colectivo perfectamente identificado, plantéelo al Servicio de Atención de Clientes.

## 8.- SERVICIO DE ATENCIÓN AL CLIENTE SISTEMA IKS eeM

Para cualquier duda y/o aclaración que precise no dude en contactar con nuestro Servicio de Atención al Cliente bien a través del teléfono **012, ó 945018000 si se llama desde fuera de la Comunidad autónoma** y/o mediante correo electrónico dirigido a la cuenta **dmausuario@yahoo.es**.

**HONDAKINEI BURUZKO DOKUMENTU ELEKTRONIKOEN TELEIZAPIDETZEA EUSKAL AE-REN EREMUAN**

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 02a

Bezero agurgarria:

2010eko urtarrilaren 1etik, hondakin arriskutsuen lekualdatzeei buruzko informazio-fluxuan tarteko diren dokumentuak, bai eta zabortegira doazen hondakin inerteak ere, Euskal AEren eremuan, modu soilik elektronikoan kudeatzen dira, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Ingurumeneko Informazioaren Kudeaketa Integraleko Sistemaren, **IKS-eeM sistema**ren, bidez.

Neurri horrek honako dokumentu hauei eragiten die: Onarpeneko Eskaria (OE, EAOE), Onarpeneko dokumentua (OA, EAOA), Lekualdatzearen Jakinarazpena (LJ) Bilketa Ibiltariaren Orria (BIO), eta Kontroleko eta Jarraipeneko dokumentua (KJA, JKA).

**2011ko urtarrilaren 1**etik aurrera, neurri hori **hondakin ez-arriskutsu**en kudeaketaren eremura ere zabalduko da.

## 1.- SISTEMAN SARTZEKO

**IKS-eeM sistema**n www.eper-euskadi.net web-orritik sartu behar da, IKS-eeM logoan klikatuta, eta, Euskal AEren eremuan, IZENPEren ondorengo txartelak erabilita bakarrik sar daiteke (IZENPE, **Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa**, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sustatuta 2002an eratu zen sozietate anonimoa):

### 1.1.- PERTSONA JURIDIKOAK

**Erakundearen txartela, bakarra eta legezko ordezkariari edo ahalordetza duen pertsonari atxikia**
**Txartel korporatibo pribatua, erakundeak baimendutako edozein pertsonari atxikia**

Salbuespen moduan, txartel korporatibo pribatua erabat hedatzen ez den bitartean, dagokion erakundeari atxikitako **herritar-txartela** erabili ahal izango dute; baina, horretarako, erakunde horretako kide direla egiaztatu beharko dute, beren NANaren kopia elektronikoa eta erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuz. Aitorpen hori, betiere, erakundearen legezko ordezkariak edo eskuordetzen duen pertsonak emango du, eta eskatzailea erakunde horretako kide dela egiaztatuko du. IKS eeM sistemak sarbidea emango dio orduan pertsona baimenduari, NAN-IFZ atxikitze-sistema baten bidez.

### 1.2.- PERTSONA FISIKOAK

Euren zentro operatiboak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dituzten pertsona fisikoek ere **herritar-txartela** erabiliko dute.

Euren zentro operatiboak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dituzten pertsona fisiko edo juridikoek **NAN elektronikoa** beharko dute, ondorengo paragrafoan aurreikusten den bezala.

### 1.3.- EUSKAL AE-Z KANPOKO ZENTRO OPERATIBOAK

Pertsona fisikoek, dela beren izenean jardunez, dela beste pertsona juridiko batzuen izenean ere, nahiz eta haien zentro operatiboak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremutik kanpo kokatuta egon, **NAN elektroniko**aren bidez jardun ahal izango dute.

Azken kasu horretan, hau da, beren erakundearen izenean jarduten dutenean (pertsona juridikoak), erakunde horretako kide direla egiaztatu beharko dute dmausuario@yahoo.es kontura NANaren kopia elektronikoa eta erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuz. Aitorpen hori, betiere, erakundearen legezko ordezkariak edo eskuordetzen duen pertsonak emango du, eta eskatzailea erakunde horretako kide dela egiaztatuko du. IKS eeM sistemak sarbidea emango dio orduan pertsona horri, NAN-IFZ atxikitze-sistema baten bidez.

## 2.- IZENPE

1.1 paragrafoan zerrendatutako ziurtagiri digitalak IZENPE sozietateak ematen ditu, eta, horretarako, aldez aurreko hitzordua eskatu behar da **90254252** telefonoan. Argibide gehiagorako, www.izenpe.com web-orria bisitatu dezakezu.

Gainera, beharrezkoa da irakurgailu integratua duen teklatua edukitzea edo, bestela, zuen ordenagailuarekin konektatu behar den txartel-irakurgailu bat behar da. Produktu informatiko espezializatuen zentro banatzaileetan eskura dezakezue hori.

## 3.- ERAKUNDE ETA/EDO PERTSONA ERABILTZAILEEI ALTA EMATEA

Erakundea (pertsona fisiko edo juridikoa) IKS-eeM sisteman alta eman gabe baldin badago, autologin prozesua aktibatu eta erakundearen edo zentroaren datuak bete beharko dira, Ingurumeneko Identifikazio Zenbakia (NIMA) eta, behar izanez gero, ingurumen-soslaiari dagozkion datuak (poltsak) lortzeko.

## 4.- AUTONOMOAK, ETE ETA MIKROENPRESAK

Datuen transakzioak eta/edo trukaketak ahalbidetuko dira IKS eeM sistemaren bidez, pertsona fisiko edo juridiko baimenduentzat: Ingurumeneko Informazioaren Kudeaketako Erakundeak (EGIA), Kudeaketa Eskuordetuko Erakundeak (KEE / hondakin-kudeatzaileak) eta Agenteak (KEA). Haien zerrenda www.eper-euskadi.net webean argitaratuta dago.

Hirugarrenen izenean Ingurumen Sailarekin ingurumeneko informazioa transakzionatzeko eta/edo trukatzeko gaituta dauden pertsona edo erakundeek, betiere, jarduera bakoitzerako beharrezko ordezkaritza eduki beharko dute, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzetan, horrek aukera emango baitie IKS eeM sisteman euren bezeroen izenean jarduteko.

Zentro operatibo ekoizlearen legezko ordezkariak berariaz jakinarazi beharko du zerbitzualdiaren existentzia: informazioaren kudeaketa (EGIA), kudeaketa eskuordetua (KEE) edo kudeaketa eskuordetuko agentea (KEA), eta, horretarako, legezko ordezkariaren ahalordetze-idazkia aurkeztu behar da, dagokion ereduaren arabera, pertsona fisiko edo juridiko bat den. Horretarako eredua ere web honetan dago: www.eper-euskadi.net.
Ordezkatuek IKS eeM sistemaren barruan erakunde bat aukeratu behar dute, ordezkaritza zeini eman behar dioten zehazteko, eta aurreko paragrafoan aipatutako dokumentu

elektronikoa erantsi beharko da, eta horrek edozein figura (EGIA, KEE, KEA) gaitzen du beraren ordezkatuaren datuetara sartzeko, eta, beraz, haren izenean elektronikoki jarduteko.

## 5.- DOKUMENTUEN TRANSAKZIO ELEKTRONIKOAK KANPOKO ERP-TIK

Honako zirkular honetan aipatzen diren dokumentu elektronikoak zuzenean transakzionatu ahal izango dira IKS eeM sistemara, e31 lengoaian homologatutako kanpoko enpresa-kudeaketako sistema batetik (ERP).
e3l lengoaiaren eta ETER proiektuaren gaineko informazio guztia www.eterproject.org webean aurki daiteke.

## 6.- HONDAKIN ARRISKUTSUEN, EZ-ARRISKUTSUEN ETA INERTEEN IKS eeM OINARRIZKO GIDAK

IKS eeM sistematik hondakinen dokumentu elektronikoak sorrarazi aurretik jarraitu behar diren urratsei buruzko dokumentu laburtuak.

Honako url honetan deskargatu daitezke:
http://www.eper-euskadi.net/eper_euskadi/eper_listados/aviso_c.htm

## 7.- IKS eeM SISTEMAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Eskaintzen diren ikastaroei buruzko informaziora (oinarrizko maila eta maila aurreratua) eta ikastaro horietarako izen-ematera Euskadi Innova web-orrian sar zaitezke: http://www.euskadinnova.net/es/enpresa-digitala/agenda/index.aspx .

Modu gehigarrian, url horren bidez, administrazio elektronikoarekiko elkarreraginean ikaskuntzako ikastaro azeleratuak eska daitezke, IKS eeM sistemaren esparruko txartel digitalaren bidez.

Aipatutako ikastaro horiek eman, parke teknologikoen eta KZ-Gunea zentroen sarean emango dira.

Beharrezko irizten badiozu kolektibo arras identifikatu baterako berariazko ikastaro bat antolatzeari, planteatu iezaiozu Bezeroen Arretako Zerbitzuari.

## 8.- IKS eeM SISTEMAREN BEZEROEN ARRETAKO ZERBITZUA

Edozein zalantza eta/edo argibide behar izanez gero, jarri harremanetan gure Bezeroen Arretako Zerbitzuarekin, dela **012 edo 945018000** telefonoen bidez, **Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpotik deitzen baduzu**, eta/edo **dmausuario@yahoo.es** helbidera posta elektroniko bat bidaliz.